

Bizkaiko Foru Aldundiak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Deialdia azaroaren 14ko BAOn argitaratu da (azaroaren 6ko 2909/2017 Foru Agindua).

Nork har dezake parte deialdi honetan?

Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak, karrerakoak nahiz bitartekoak, bai lan-hitzarmen finkodunak. Aldi baterako kontratua duten langileak ere aurkeztu ahal dira, baldin eta eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

Nola egin eskabidea?

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>

Eskabidea egiteko epea

Epea 2017ko azaroaren 15ean hasi eta abenduaren 4an (biak barne) bukatuko da.

Azterketa-probak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gainditzea azterketa gainditzeko.

Emaitzak

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira eta Hizkuntz Normalizazio Atalaren intraneteko orrian ikusi ahal izango dira.

OHARRA

Azterketaren emaitza gordetzea.

→Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzen duten azterketariak salbuetsita egongo dira hiru trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.

Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira IVAPen aurre-aurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak ere.

→Mintzamina, irakurmena eta entzumena gainditzen duten azterketariak salbuetsita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak

egiazatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira idazmenaren azterketara.

Hala ere, kasu batean zein bestean, azterketari horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.